<u>KOSTUEN EGITURA</u>

Enpresa bat aurrera eramateko, hainbat prozesu burutu behar ditugu. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gastu horiei aurre egiteko gure enpresak gai izan beharko du. Kostuen egituraren ezaugarriak hauexek izan daitezke: kostu finkoak, kostua aldakorrak, eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomiak.

Gure enpresaren negozio-eredua aztertuz gero, konturatu gara prezio baxuzko kalitate-maila handiko zerbitzuak eskainiko ditugula; beraz, ezaugarri hauetatik abiatuta, gure enpresaren prozesuak automatizatuta eta kostu-egitura ahalik eta murriztuen mantentzea lortu nahi dugu, prezio baxuetan oinarritutako politika komertziala erabiliz. Gainera, gure enpresak bere marka bultzatzea du helburu, kalitate handiko zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen.

Gure proiektua martxan jartzeko, kostu guztiak kontuan hartu behar ditugu. Gure zerbitzuak garatzeko, beste enpresa baten langile batzuk azpikontratatuko ditugu, eta lokal bat izango behrako dugu han lan egiteko.

Bestaldetik, lokalean lan egin ahal izateko, hainbat gailu izatea ezinbesteko litzateke: hainbat ordenagailu, inpresora eta mugikor, besteak beste, lokalaren obrak dakartzan gastua guztiak kontuan ez izanik.

Azkenik, gure enpresa potentziatzeko publizitate gastuak izango ditugu, eta gure enpresan lan egingo duten langilen soldatak beste gastu finko batzuk izango dira.

Hona hemen taula bat, non gutxi gorabehera gastu finko eta orokorrak azaltzen diren:

| | |
|---|---|
| **Argia** | |
| | |
| Bi hilabetero | 87.50 € |
| | |
| **Hilero 87,50/2** | **43.75 €** |
| | |
| | |
| **Asegurua** | |
| | |
| Multiarrisku asegurua (urtero) | 350.00 € |
| Istripu asegurua (urtero) | 800.00 € |
| Erantzunkizun Zibila (urtero) | 900.00 € |
| Asegurua totala (urtero) | 2,050.00 € |